**2022KO URRIAREN 18AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.**

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO MAIATZAREN 16KO, UZTAILAREN 14KO ETA IRAILAREN 20KO BILKUREN AKTAK).

2.- 2023. URTERAKO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEEN ALDAKETA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA.

3.- 3/2022 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.

4.- HERRIALDE BEHARTSUENEKIKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRULAGUNTZAK BANATZEKO ARAUDIAREN ARABERAKO BANAKETA ONARTZEA.

5.- AGITAX. 2023 URTERAKO TAXIEN TARIFAK ONARTZEA.

6.- ORMAZPEI S.L. LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN LOKALEN EGOKITZAPEN LANEN 3. LAN EGIAZTAGIRIA.

7-. ALKATETZAREN ERABAKIAK.

8.- GALDE ERANTZUNAK.

**ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

**ALKATE-LEHENDAKARIA**

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

**ZINEGOTZIAK**

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

**EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:**

Bilkurakide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

**1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2022KO MAIATZAREN 16KO, UZTAILAREN 14KO ETA IRAILAREN 20KO BILKUREN AKTAK).**

Alkateak, 2022ko maiatzaren 16ko, uztailaren 14ko eta irailaren 20ko bilkuren aktetan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen dira adierazitako aktak.

**2.- 2023. URTERAKO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEEN ALDAKETA ETA EGUTEGI FISKALAREN ONARPENA.**

Espedientea ikusirik eta Kontuen Batzorde Bereziak (eta pertsonala) 2022ko urriaren 11n egindako proposamena ikusirik.

Udalak, ezartzen dituen, zerga, tasa eta precio publikoen Ordenantza Fiskalen prezio, kuota eta portzentaiak orokorki mantentzea proposatzen da, honako zehazpenekin:

- Kasuan kasu, dagozkion ordenantza fiskaletan, hobariak edo baldintzak betetzeari buruzko datuak eskuratzeko (Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez) azalpena jasoko da, dagozkion aldaketak eginez ondorio horretarako. Aldaketa hau, hasiera batean, Ondasun Higiezinei buruzko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautuko dituen Zerga Ordenantzan jasoko da.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren testua egokitzen da (landalurreko eraikinen instalazioak egokitzearen adierazpena jasoz)
- Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak arautzen dituzten ordenantzaren kuotak egokitzen dira Gizarte Zerbitzuetatik adierazitakoaren arabera.
- Zerbitzuak eskaintzeagatiko edo udal jarduerak egiteagatiko prezio publikoen ordenantza arautzailean honakoak egokitzen dira:
    - Fotokopiak egiteagatik eta fax zerbitzuak (inprimatzea jasoz).
    - Donejakue Bideko Erromes Etxearen erabilpena jasotzen da (10 euro pertsona eta gaueko).
    - Beste zenbait zerbitzuengatiko prezio publikoak jasotzen dira:

      . Maratoiko kamiseten salmenta (20 euro)

      .Hezkuntza, ongizate eta aisialdiko ikastaroen prezio publikoa irakaskuntza zerbitzuengatik.

      Hiruhilekoa. 40 euro.

      .Jarduera ludiko-gastronomikoak:

      ."Herri afariko" tiketa.

      Helduak. 20 euro.

      Adingabeak. 12 euro.

      . Sardina jatea. 5 euro.

      . Paella jatea. 2 euro.

      . Hegaluze pintxoa. 2 euro.

- Hondakinak jasotzeagatiko tasetan, Sasieta Mankomunitateak ezarriko duen igoera % 5,7 ingurukoa izango dela kontuan hartuz, eta udalaren gastu-sarreren azterketa egin ondoren, zerbitzuaren tasak aurten ez igotzea irizten da.

Era berean, 2023rako prestatu den egutegi fiskalaren onarpena bideratzea proposatzen da.

Proposamenak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Aipatutako proposamen horiek onartu, eta horien arabera, 2023. urteko urtarrilaren 1ean indarrean sartuko diren zerga, tasa eta prezio publikoen Ordenantza arauemaileak eta bere eranskinak hasiera batez onartu honakoaren arabera:

I. Eranskina/Anexo I.

| **1. Ondasun Higiezinei buruzko Zergaren kuotak finkatzeko funtsezko elementuak arautuko dituen Zerga Ordenantza** | | **1. Ordenanza Fiscal reguladora de los elementos esenciales para determinar las cuotas del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.** |
|---|---|---|

| | |
|---|---|
| **I. XEDAPEN OROKORRAK** | **I. DISPOSICIONES GENERALES** |
| **1. artikulua** | **Artículo.1.** |
| Udal honek, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauko 14. 3 artikuluak, ematen dion ahalmena erabiliz, ondorengo artikuluan ezarritako terminoetan finkatzen du Zerga honen karga tasa. | Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el artículo 14.3 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente. |
| **II. ZERGAREN KARGA TASA** | **II. TIPOS DE GRAVAMEN** |
| **2. artikulua** | **Artículo.2.** |
| 1. Hiri ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren karga tasa, Eranskinean adierazten den ehuneko hainbestean geratzen da finkatua. | 1 El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los bienes de naturaleza Urbana queda fijado en el porcentaje que se indica en el Anexo. |
| 1. Landa ondasunei aplikagarri zaien Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren karga tasa, Eranskinean adierazten den ehunekoaren hainbestean geratzen da finkatua. | 2 El tipo de gravamen del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica, queda fijado en el porcentaje que se indica en el Anexo. |
| **III. OINARRI EZARGARRIA ETA KUOTAK** | **III. BASE IMPONIBLE Y CUOTAS** |
| **3. artikulua** | **Artículo.3.** |
| 1. Hiri Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Oinarri Ezargarria, ondasun horien balio katastrala izango da. | 1. La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicado a los Bienes de naturaleza Urbana, estarán constituidos por su valor catastral. |
| 2. Landa ondasunei aplikagarri den Ondasun Higiezinen gaineko Zergaren Oinarri Ezargarria balio katastrala izango da. | 2. La Base Imponible del Impuesto de Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica estará constituido por el valor catastral. |
| 3. Zerga honen zehaztapena aurreko ataletan adierazitako Oinarri Zergagarriei Ordenantza honetako Eranskinean bakoitzari dagokion karga tasak aplikatuz lortuko da. | 3. La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el Anexo de esta Ordenanza. |
| **IV. SALBUESPENAK** | **IV. EXENCIONES,** |
| **4. artikulua** | **Artículo.4.** |
| Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko | Las contempladas en el artículo 4 de la Norma |

uztailaren 5eko, 12/1989 Foru Arauaren 4. artikuluan jasotakoak.

Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

**V. HOBARIAK**

**5. artikulua**

1. Ematen diren hobari guztiek eskabidea egin eta hurrengo zergatik aurrera izango dituzte ondorioak, eta ez dute atzeraeraginezko ondoriorik izango.

Ondasun Higiezinen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko, 12/1989 Foru Arauko 15. artikuluan arautuakoekin batera, jarraikoak onartzen dira:

a) Kuota osoaren %50rainoko hobaria, subjektu pasiboak familia ugarien titularrak direnean.

Hori emateko ezaugarriak eta ekarri beharreko agiriak:

1) Ohiko bizitokia: erroda agiria.

2) Ondasun Higiezinen Zerga agiriaren kopia.

3) Foru Aldundiko Gizartekintzak emandako familia ugariaren titulua indarrean.

4) Beste Ondasun Higiezinen jabe ez direla adierazteko Zinpeko adierazpena (garaje bat, trasteleku bat edo jarduera profesionalean ari tze ko lokala izan ezik).

Heredentziako higiezinetan jabegotza zati-banatuta egotea onartuko da, beste etxe bizi tza baten baliora iristen ez bada.

5) Eskaera epea: urtarrilaren 1etik 31ra. Eskaera ekitaldi bakoitzean egin beharko da.

Hobari hori bat etorriko da Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplika dakiokeen beste edozeinekin.

— Ezarritako hobari horiek, lor daitezkeen beste edozein hobari fiskalekin bateragarriak izango dira.

**V. BONIFICACIONES**

**Artículo.5.**

1. Todas las bonificaciones que se concedan surtirán efecto desde el período impositivo siguiente a aquel en que se hubiera efectuado la solicitud y no pueden tener carácter retroactivo.

Además de las previstas en el artículo 15 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, se aprueban las siguientes bonificaciones:

a) Se establece una Una bonificación del 50 por 100 de la cuota íntegra del impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa.

Requisitos y documentación a presentar para su concesión:

1) Vivienda habitual: certificado de empadronamiento.

2) Copia del recibo del IBI.

3) Título de familia numerosa emitido por el Departamento de Servicios Sociales de la Diputación Foral en vigor.

4) Declaración jurada de no ser propietarios de otros Bienes Inmuebles (excepto un garaje, un trastero y en su caso, local en el que ejerza la actividad profesional).

Se admitirá la existencia de propiedad compartida de bienes heredados sin que lleguen a suponer el valor de otra vivienda.

5) Plazo de solicitud: del 1 al 31 de enero. La solicitud deberá realizarse en cada ejercicio.

Esta bonificación será incompatible con cualquier otra aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

— Las bonificaciones establecidas serán compatibles con cualquier otro beneficio fiscal que se pudiera obtener.

b) Kuota osoaren %50eko hobaria, beti ere bizilekua «Etxebizitza Hutsaren Programa» sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren 315/Dekretuak, abenduaren 30ekoak, arautzen duen «Etxebizitza Hutsaren Programa» ezarritako baldintzei jarraituz alokatuta badago sortzapen datan.

b) Bonificación de hasta el 50% de la cuota en el marco del «Programa de Vivienda Vacía» siempre que el inmueble esté siendo alquilado de acuerdo a los requisitos establecidos en el «Programa de Vivienda Vacía» regulado por el Decreto 315/2002, de 30 de diciembre, del Gobierno Vasco a la fecha de devengo.

Hobariak ezin dira elkar metatu eta ez dira bateragarriak.

Las bonificaciones no son acumulables ni compatibles entre sí.

2. Artikulu hauek ezarritakoaren arabera, 39/2015 Legearen 28. artikulua eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1. artikulua, Zegamako Udalak hobaria eskuratzeko baldintzak betetzen diren ala ez zehazteko informazio hau kontsultatuko du zuzenean (interesdunak aurka egiten ez badu) Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Ogadsunaren Erregistroetan, eta Nisae elkarreragingarritasun-nodoaren bidez:

— Foru Ogasuna: Ondasun Higiezinen Kontsulta.

— Eusko Jaurlaritza: Familia ugariaren tituluen kontsulta.

Dena den, Udalak eskaera jasotako unean beharrezkoa den dokumentazioa ezin badu modu telematikoan lortu informatika arazo bat medio, eskatzaileak aurkeztu beharko du dokumentazioa espedientearen Kudeaketarekin jarraitu ahal izateko.

Datuak Babesteko 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikuluaren arabera, eskatzaileak bere datuak kontsultatzearen aurka egin ahal izango du, eta aurka egiteko arrazoiak alegatu beharko ditu; kasu horretan, udalak dagozkion dokumentuak aurkeztera behartu ahal izango du.

2. De acuerdo con el art. 28 de la Ley 39/2015 y el art. 6.1. del Reglamento (UE) 2016/679, el Ayuntamiento de Zegama consultará directamente, salvo que la persona interesada se opusiera a ello, en el Registro del Gobierno Vasco y en el Registro de la Diputación Foral, a través del nodo de interoperabilidad Nisae, la siguiente información para determinar el cumplimiento de las condiciones para acceder a la bonificación:

— Diputación Foral: Consulta de Bienes Inmuebles.

— Gobierno Vasco: Consulta de los títulos de familia numerosa.

No obstante, en el caso de que el Ayuntamiento en el momento de recibir la solicitud no pueda obtener la documentación necesaria de forma telemática por un problema informático, el solicitante deberá aportar la documentación para poder continuar con la gestión del expediente.

De acuerdo con el artículo 21 del Reglamento (UE) 2016/679 de Protección de Datos, de 27 de abril de 2016, la persona solicitante podrá oponerse a la consulta de sus datos, debiendo alegar los motivos de su oposición, en cuyo caso, el Ayuntamiento podría obligarle a presentar los correspondientes documentos.

## VI. KUDEAKETA ARAUAK

**6. artikulua**

Zerga honen kudeaketa, likidazio, bilketa eta ikuskapena Gipuzkoako Foru Diputazioaren gain eskuordetu daiteke, Udalbatzak erabakitako terminoetan, edukian eta eremuan, horretarako hitzarmen egokia izenpetuz.

## VI. NORMAS DE GESTIÓN

**Artículo.6.**

Las facultades de gestión, liquidación, recaudación e inspección de este impuesto, podrán delegarse en la Diputación Foral de Gipuzkoa, en los términos, contenido y alcance que el Ayuntamiento Pleno determine, suscribiendo al efecto el oportuno convenio.

Hartuko den udal erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean emango da argitara.

Interesdunek hobariak eskatzeko espedienteetan eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko dute harik eta Zegamago Udalak datuak egiaztatzeko eta kontsultatzeko zerbitzuak Datuen Arteko Plataformaren (DAP) bidez ezarri arte.

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta kuotak Udalbatzarrak onartu ditu 2021eko azaroaren 2an, 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

El acuerdo municipal adoptado se publicará en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Las personas interesadas deberán presentar la documentación exigida en los expedientes de solicitud de bonificación hasta que el Ayuntamiento de Zegama implante los Servicios de Verificación y Consulta de datos a través de la Plataforma de Intermediación de Datos (PID).

La Ordenanza Fiscal transcrita y su anexo fueron se aprobaron por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 2 de noviembre de 2021 y entrarán en vigor el 1 de enero de 2022, continuándose aplicando en tanto no se acuerde su modificación o derogación en forma reglamentaria.

**ERANSKINA** / **ANEXO**

| | | |
|---|---|---|
| 1.1. Hirilur Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa:. | % 0,2614 | 1.1. Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Urbana: |
| 1.3. Landa lur Ondasun Higiezinen gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa:. | % 0,6672 | 1.3. El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica: |

## 5 Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautuko duen Ordenantza Fiskala

### I. XEDAPEN OROKORRAK

**1. Artikulua.**

Udalak, Lurralde Historikoko Toki Ogasunak erregulatzen dituen Foru Arauak nahiz Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergari buruzko uztailaren 6ko Foru Arauak aurreikusitakoaren arabera, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri eta exijituko du Ordenantza honi jarraiki. Aplikatuko diren tarifak jasotzen dituen I Eranskina ere Ordenantza honen zati izango da.

**2. Artikulua.**

Ordenantza hau udal barruti osoan aplikatzekoa da.

## 5. Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras

### I. DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.**

Este Ayuntamiento, de acuerdo con lo previsto en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico y la Norma Foral 15/1989, de 6 de julio, del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, establece y exige el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras con arreglo a la presente Ordenanza, de la que es parte integrante el Anexo I en el que se contienen las tarifas aplicables.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

## II. ZERGA GAIA

### 3. Artikulua.

Zerga-gaia sortzen da Gipuzkoako udalerrien barruan edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteagatik, horretarako obra edo hirigintza lizentzia jasotzea exijitzen denean, lizentzia hori jaso edo ez, edo erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu beharra dagoenean, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera egitea Zerga aplikatzen duen udalari badagokio.

### 4. Artikulua.

Honakoak izango dira, banan banan adierazita, Zerga hau ezartzea tokatzen zaien egintzak:

1. Solairu berriko edozein eraikin edo instalazio egiteko obra lanak.

2. Dagoeneko zutik dagoen edozein eraikin edo instalazio handitzeko obrak.

3. Dagoeneko zutik dagoen edozein eraikin edo instalazioren egitura aldatzea dakarten konponketa eta berrikuntza lanak.

4. Dagoeneko zutik dagoen edozein eraikin edo instalazioren kanpoko itxura aldatzea dakarten obrak.

5. Eraikinen barne antolamendua aldatuko duten obrak, eraikina edozertarako erabiltzen dela ere.

6. Behin-behineko obra lanak, hau da, Lurraren indarreko Legean azaltzen direnak.

7. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

8. Lur erauzketak, hala nola hondeaketak, berdinketak eta betelanak, ez badira, behintzat, aurretik onartu edo baimendutako beste Hirigintza edo Eraikuntza Proiekturen batean egin beharreko obratzat zehaztu eta programatuak.

9. Eraikinak erastea, aurri zorian daudela aitortutakoetan salbu.

10. Aparkalekuak, industria, merkataritza nahiz lanbide jarduerak, zerbitzu publikoak edo lurrazpiari emanen zaion beste edozein erabilera antolatzeko egindako lurpeko instalazioak.

11. Bide publikotik ikusteko moduan propaganda

## II. HECHO IMPONIBLE

### Artículo 3.

Constituye el hecho imponible de este Impuesto la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija obtención de la correspondiente licencia de obra urbanística o presentación de declaración responsable o comunicación previa, se haya obtenido o no dicha licencia o presentado o no la comunicación previa, siempre que su expedición o actividad de control corresponda a este Ayuntamiento.

### Artículo 4.

A título enunciativo, constituyen supuestos de hecho imponible sujetos al Impuesto los siguientes:

1. Las obras de construcción de edificaciones o instalaciones de todas clases de nueva planta.

2. Las obras de ampliación de edificios o instalaciones de todas clases existentes.

3. Las de modificación o reforma que afecten a la estructura de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

4. Las de modificación del aspecto exterior de los edificios e instalaciones de todas clases existentes.

5. Las obras que modifiquen la disposición interior de los edificios, cualquiera que sea su uso.

6. Las obras que hayan de realizarse con carácter provisional a que se refiere la vigente Ley del Suelo.

7. Las obras de instalación de servicios públicos.

8. Los movimientos de tierra, tales como desmontes, excavación y terraplenado, salvo que tales actos estén detallados y programados como obras a ejecutar en un proyecto de Urbanización o de Edificación aprobado o autorizado.

9. La demolición de las construcciones, salvo en las declaradas de ruina inminente.

10. Las instalaciones subterráneas dedicadas a aparcamiento, actividades industriales, mercantiles o profesionales, servicios públicos o cualquier otro uso a que se destine el subsuelo.

11. La colocación de carteles de propaganda

kartelak jartzea.

12. Baliabide ekonomikoak badirela erakusten duten inbertsioen bidez edozein obra, eraikuntza edo instalazio egitea, tokatzen den obra baimena edo hirigintza baimena aterata.

**5. Artikulua.**

1. Zerga honen pean ez dira egongo Udal honen jabetzako higiezinetan egindako eraikuntza, obra edo instalazioak, beti ere obraren jabe gisa Udalak iharduten badu.

2. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsita dago edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea, horren jabeak Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Autonomi Erkidegoa, Estatua edo Udal Entitateak direnean, baldin eta, Zergari lotuta egonik, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko eta populazioen eta ur zikinen saneamendura zuzenduta badago, nahiz eta horien kudeaketa, dela inbertsio lanetan dela artapen lanetan, organismo autonomoek egin.

**III. SUBJETU PASIBOAK**

**6. Artikulua.**

1. Eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisiko, pertsona juridiko eta Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatzen dituen entitateak dira, zergadun gisa, Zerga honen subjektu pasiboak, haiek egiten diren ondasun higiezinaren jabeak izan edo ez.

2. Aurreko paragrafoan ezarritako ondorioetarako, lanek sortarazten dituzten gastuak edo kostua jasaten dituena izango da eraikuntza, instalazio edo obraren jabea.

**7. Artikulua.**

1. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezko subjektu pasibotzat hartuko dira beharrezko lizentziak eskatu edo erantzukizunezko aitorpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkeztu edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

visibles desde la vía pública.

12. Cualesquiera obras, construcciones, o instalaciones que impliquen inversión de recursos económicos demostrativos de una capacidad económica y sujetos a licencia de obras o urbanísticas.

**Artículo 5.**

1. No estarán sujetas a este Impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de la obra.

2. Está exenta del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean dueños la Diputación Foral de Gipuzkoa, la Comunidad Autónoma del País Vasco, el Estado o las Entidades Locales que, estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obra hidráulicas saneamiento de poblaciones y de sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por Organismo Autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva como de conservación

**III. SUJETOS PASIVOS**

**Artículo 6.**

1. Son sujetos pasivos de este Impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el art. 35.3 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no propietarios del inmueble sobre el que se realice aquélla.

2. A los efectos previstos en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

**Artículo 7.**

1. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente, tendrán la condición de sujetos pasivos sustitutos del contribuyente quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las

construcciones, instalaciones u obras.

2. Nolanahi ere, zergadunaren ordezkoari exijitu ahal izango dio Udalak ezagutzera eman diezaiola zergadun den pertsona edo entitatearen izena eta helbidea.

2. En todo caso, la Administración Municipal podrá exigir al sustituto del contribuyente la identidad y dirección de la persona o entidad que ostente la condición de contribuyente.

**IV. ZERGA OINARRIA**

**8. Artikulua.**

1. Zergaren oinarria eraikuntza, instalazio edo obraren kostu erreal eta benetakoa izango da. Ondorio horietarako, kostu hori eraikuntza, instalazio edo obra gauzatzeko kostu materiala dela jotzen da.

Oinarri ezargarritik kanpo geratzen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta erregimen berezietako antzeko beste zergak, eraikuntza, instalazio edo obrekin lotuta egon litezkeen tasa, prezio publiko eta udal mailako gainerako ondare-prestazioak, eta, orobat, profesionalen ordainsariak, kontratistaren mozkin enpresariala eta hertsi-hertsian exekuzioaren kostu materiala osatzen ez duten bestelako kontzeptuak.

2. Aurreko zenbakian ezarritakoaren ondorioetarako, behin-behineko likidazioa oinarritzen den exekuzio-aurrekontuan materialen kostua eta aurreko lanak eta lan osagarriak ere sartuko dira.

3. Oinarri zergagarria, Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obren kasuetan, Udal Administrazioak erabakitakoa izango da, bataz besteko kostuaren arabera.

**IV. BASE IMPONIBLE**

**Artículo 8.**

1. La base imponible del Impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra y se entiende por tal a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación y obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio empresarial del contratista ni cualquier otro concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2. A efectos de lo dispuesto en el número anterior, el presupuesto de ejecución sobre el que se gira la liquidación provisional incluirá el costo de los materiales, así como de los trabajos previos auxiliares.

3. En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la Administración Municipal de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

**V. ZERGAREN KUOTA**

**9. Artikulua.**

Zergaren oinarriari I Eranskinean adierazten den karga tasa aplikatuz aterako da Zerga honen kuota.

**V. CUOTA TRIBUTARIA**

**Artículo 9.**

La cuota de este Impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible el tipo de gravamen que se expresa en el Anexo I.

**VI. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK**

**10. Artikulua.**

Honako hobari hauek zehazten dira:

1. 100eko 90eko hobaria ezarriko da, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasuna eta habitagarritasun baldintzak

**VI. EXENCIONES Y BONIFICACIONES**

**Artículo 10.**

Se establecen las siguientes bonificaciones:

1. Se aplicará una bonificación del 90 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras que favorezcan las condiciones de acceso y

errazten dituztenenean.

habitabilidad de los discapacitados

2. 100eko 50%eko hobaria baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte.

2.Una bonificación del 50 por 100 a favor de las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente.

Aurreko ataletan aipatutako hobarien alderdi objektiboa osatzen duten obrak egingo ez balira, hobaria horren ondorioz ordaindu ez den zerga-zatia ordaindu beharko da, baita berandutza interesak ere.

En caso de no realizarse las obras que integran el aspecto objetivo de las bonificaciones recogidas en los párrafos precedentes, deberá abonarse la parte del impuesto que hubiese dejado de ingresar como consecuencia de la bonificación practicada y los intereses de demora.

Helburu horrekin Udal Administrazioak egindako obrak hobaria jaso duten eraikuntza edo berrikuntza jarduketarekin bat datozen egiaztatu ahal izango du. Halaber, egoki iruditzen zaizkion jarduerak burutuko ditu onura horretaz baliatzen direla egiaztatzeko.

A tal fin la Administración Municipal podrá comprobar la adecuación de las obras efectuadas con la actuación de construcción o rehabilitación bonificada, así como realizar cuantas actuaciones de policía considere oportunas para acreditar el disfrute del beneficio.

**VI. SORTZAPENA**

**11. Artikulua.**

Eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan bertan sortzen da Zerga, bai eta beharrezko den lizentzia, atera ez bada ere, edo erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu ez bada ere.

**VI. DEVENGO**

**Artículo 11.**

El Impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación y obra, aun cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia o no se haya presentado la declaración responsable o comunicación previa.

**VII. KUDEAKETA**

**12. Artikulua.**

Tokatzen den lizentzia edo erantzukizunezko aitorpena edo aurretiazko komunikazioa ematerakoan, behin behineko likidazioa egingo da zergaren oinarria interesatuek aurkezturiko aurrekontuaren arabera zehaztuta. Gainerakoetan, zergaren oinarria udal teknikariek zehaztuko dute, proiektua zer kostako den irizten diotenaren arabera.

**VII. GESTION**

**Artículo 12.**

Cuando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o comunicación previa, se practicará una liquidación provisional, determinándose la base imponible en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que hubiera sido visado por el colegio oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo. En otro caso, la base imponible será determinada por los técnicos municipales, de acuerdo con el coste estimado del proyecto.

**13. Artikulua.**

Dagokion lizentzia edo erantzukizunezko aitorpena

**Artículo 13.**

Si, concedida la correspondiente licencia o la

edo aurretiazko komunikazioa eman ondoren hasierako proiektua aldatuko balitz, aurrekontu osagarri bat aurkeztu beharko da, aurrekontuaren igoeraren araberako behin-behineko likidazio berri bat egiteko.

presentación de declaración responsable o comunicación previa, se modificara el proyecto inicial, deberá presentarse un nuevo presupuesto a los efectos de practicar una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

**14. Artikulua.**

1. Benetan egindako eraikuntzak, instalazioak nahiz obrak eta horien benetako kostua ikusirik, Udal Administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena egin ondoren, hala behar bada, aurreko atalean aipatzen den zerga-oinarria aldatu egingo du, eta behin betiko likidazioa egingo; eta behin betiko likidazio horren arabera, aldea ordaintzeko eskatu edo, hala tokatzen bada, interesatuari itzuli egingo dio.

2. Aurreko atalean ezarritakoa bete ahal izateko, obra bukatu edo behin-behingoz onartu ondorengo lehen hilabetearen barruan, Udalari aditzera eman beharko zaio hala gertatu dela. Aitorpen horri obraren zuzendari teknikoaren ziurtagiria erantsi beharko zaio, tokatzen den elkargo ofizialak ikuskatua, hala egitea tokatzen denean. Ziurtagiri horrek jaso beharko du obrak guztira zer kostu izan dituen, baita teknikariaren gastuak ere, hala nola, proiektua idatzi eta zuzentzearena, mozkin industrialarena, nahiz bestelakoak.

**Artículo 14.**

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la Administración Municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa, modificará, en su caso, la base imponible, practicando la correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia acompañada de certificación del director facultativo de la obra, visada por el colegio profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el costo total de las obras incluidos los derechos facultativos del proyecto y dirección, beneficio industrial y otros que puedan existir por motivo de los mismos.

**15. Artikulua.**

Zergaren likidazioari dagozkionetarako, berdin balioko du administrazioak baimena espresuki emana izan edo baimena isiltasun administratibo positiboaren bidez emana izan.

**Artículo 15.**

A efectos de la liquidación del Impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrán el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

**16. Artikulua.**

Udalak Zerga hau autolikidazioaren bidez exijitu ahal izango du.

**Artículo 16.**

El Ayuntamiento podrá exigir este Impuesto en régimen de autoliquidación.

**17. Artikulua.**

Lizentziaren titularrak baimendutako obrak, eraikuntzak edo instalazioak ez egitea erabakiko balu, eta hori idatziz espreski adierazi, eginiko behin-behineko likidazioa itzuliko dio Udalak edo bertan behera utzi.

**Artículo 17.**

Si el titular de una licencia desistiera de realizar las obras, construcciones o instalaciones autorizadas mediante renuncia expresa formulada por escrito, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación total de la liquidación provisional practicada.

**18. Artikulua.**

Lizentzia iraungi ondoren, Udalak egindako likidazioa itzuli edo bertan behera utziko du, baldin

**Artículo 18.**

Caducada una licencia, el Ayuntamiento procederá al reintegro o anulación de la liquidación practicada,

eta ez bada gertatzen, titularrak berritzea eskatu eta Udalak baimena berritzea.

salvo que el titular solicite su renovación y el Ayuntamiento la autorice.

Transkribatutako Ordenantza Fiskala eta portzentaiak onartu ditu Udalbatzak 2021eko azaroaren 2an egindako batzarraldian eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean, eta erregelamenduaren arabera aldatzea edo derogatzea erabakitzen ez den bitartean aplikatuko da.

La Ordenanza Fiscal transcrita y los porcentajes fueron aprobados por el Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 2 de noviembre de 2021 y entrarán en vigor el 1 de enero de 2022, continuándose aplicando en tanto no se acuerde su modificación o derogación en forma reglamentaria.

**I ERANSKINA**

**ANEXO I**

**PORTZENTAIA/TASA** **PORCENTAJE/TASA**

| | | |
|---|---|---|
| Etxebizitza berriak egitea, hobetzeak, handitzeak eta lanak lehendik dauden etxebizitzatan | 4,5 | Construcción, mejoras, ampliación y obras en vivienda existente. |
| Egituran eraginik ez duten barne-lanak | 1,5 | Obras interiores que no afecten a la estrucutura |
| Etxebizitza berriak egitea ,eta hobetzeak, handitzeak eta lanak lehendik dauden etxebizitzatan horiek sute edo hondamen baten ondorioz eragindako kalteengatik egiten badira | 0,5 | Construcción, mejoras, ampliación y obras en vivienda resultante de daños causados a consecuencia de un incendio o destrucción |
| Landalurrean eraikin berriak egitea edo lehendik daudenak handitzea edo birgaitzea eta eraikin horietan instalazioak. | 0,5 | Rehabilitación, construcción, ampliación e instalaciones de edificaciones ubicadas en suelo rural. |
| Berrikuntzak, hobekuntzak edo handitzeak merkataritza lokaletan | 2 | Renovación, mejoras o ampliación en locales comerciales |
| Industria eraikinak | 2 | Edificaciones industriales |
| Aurrreko puntuetan sartzen ez diren gainontzeko eraikuntza, instalakuntza eta lanak | 4,5 | Resto de construcciones, instalaciones y obras no incluidas en los apartados anteriores |

## 7. ORDENANTZA FISKALA: ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ARAUTZEN DITUENA

**XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.**

Udal honek Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen duen Foru Arauari jarraiki, Eranskinean zehazten diren tasak ezarri eta exijitzen ditu zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik. Ordenatza honetan adierazten diren arauen arabera ezarri eta exijitzen dira tasa horiek, eta haren barruan geratzen dira jasota.

**2. artikulua.**

Ordenantza hau udalerri guztian aplikatuko da.

**ZERGAGAIA**

**3. artikulua.**

Udal Administrazioaren aldetik zerbitzu bat eskaintzeak edo jarduera bat burutzeak eratzen du zergagaia, eskatua izan delako, edo partikularren ekintza edo hutsegiteen ondorioz zeharka eragin delako.

**SUBJEKTU PASIBOA**

**4. artikulua.**

1. Honako hauek izango dira, zergadun bezala, subjektu pasiboak: Pertsona fisikoak zein juridikoak, eta Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak 35. artikuluan aipatzen dituen entitateak, zerbitzu edo jarduerak eskatzen dituztenean edo haien onura edo eragina jasotzen dutenean.

2. Zergadunaren ordezkotzat hartuko dira:

a) Etxebizitza edo lokalen okupatzaileei onura edo eragina dakarkieten zerbituz edo jarduerengatik ezarritako tasetan: Higiezin horien jabeak. Horiek, hala dagokienean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Suhiltzaile zerbitzuengatik, aurrien preben-tzioagatik, eraikuntza eta eraispen zerbitzuengatik, salbamendukoengatik eta, oro har, pertsona eta ondasunak babesteko zerbitzuengatik ezarritako tasetan, zerbitzuaren mantenua barne, arriskuaren entitate edo sozietate aseguratzaileak.

## 7. ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LAS TASAS POR PRESTACIÓN DE SERVICIOS PÚBLICOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES ADMINISTRATIVAS

**DISPOSICIONES GENERALES**

**Artículo 1.**

Esta entidad local, de acuerdo con la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, establece y exige tasas por la prestación de los servicios y la realización de las actividades que se recogen en el Anexo, en los términos de la presente Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

**HECHO IMPONIBLE**

**Artículo 3.**

Constituye el hecho imponible la efectiva prestación del servicio o realización de la actividad por la administración local, bien porque haya sido instada, bien porque indirectamente haya sido provocada por las acciones u omisiones de los particulares.

**SUJETO PASIVO**

**Artículo 4.**

Son sujetos pasivos, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a las que se refiere el artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, que soliciten los servicios o actividades o que resulten beneficiadas o afectadas por aquéllos.

2. Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente:

a) En las tasas establecidas por razón de servicios o actividades que beneficien o afecten a los ocupantes de viviendas o locales, los propietarios de dichos inmuebles, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

b) En las tasas establecidas por la prestación de servicios de prevención y extinción de incendios, de prevención de ruinas, construcciones y derribos, salvamentos y, en general, de protección de personas y bienes, comprendiéndose también el mantenimiento del servicio, las entidades o

sociedades aseguradoras del riesgo.

c) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik ezarritako tasetan: Obren eraikitzaileak edo kontratistak.

c) En las tasas establecidas por el otorgamiento de las licencias urbanísticas previstas en la normativa sobre el suelo y ordenación urbana, los constructores y contratistas de obras.

**5. artikulua.**

Tasak ordaintzera behartuta daude:

a) Partikularren eskariz egindako zerbitzu edo jardueren kasuan, eskaera egin dutenak.

b) Partikularrek eskatu ez baina, horien ekintza edo hutsegiteengatik, derrigorrezkoak gertatu diren zerbitzu edo jardueren kasuan, ekintza edo hutsegite horiek loporagarri dituztenak.

**Artículo 5.**

Están obligados al pago de las tasas:

a) En el caso de servicios o actividades realizados a solicitud de los particulares, quienes los soliciten.

b) En el caso de servicios o actividades realizados sin haber sido solicitados por los particulares, pero motivados por actuaciones y omisiones de ellos, aquellos a quienes les sean imputables dichas actuaciones u omisiones.

6. artikulua.

Ordenantza honetatik eratortzen diren zerga zorretan, subjektu pasiboarekin batera, tarifak aplikatzeko arauetan aipatzen diren pertsonek ere erantzungo dute.

Artículo 6.

Junto al sujeto pasivo responden de las deudas tributarias que se deriven de esta Ordenanza las personas que en su caso se mencionen en las normas de aplicación de las tarifas.

**SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK**

**7. artikulua.**

Salbuespenak edo bestelako onura fiskalak aplikagarri diren xedapen orokorretan ezarritakoaren arabera emango dira.

**EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES**

**Artículo 7.**

La concesión de exenciones u otros beneficios fiscales se ajustará a lo establecido en las disposiciones generales de aplicación.

**ZERGA OINARRIA**

**8. artikulua.**

Zerga oinarria zerbitzua gauzatzen den unitate bakoitzak eratzen du, Eranskinean jasotakoaren arabera.

**BASE IMPONIBLE**

**Artículo 8.**

Constituye la base imponible cada una de las unidades en que se materialice el servicio, en los términos contenidos en el Anexo.

**KUOTA**

**9. artikulua.**

Zerga kuota tarifa bat espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, Eranskinean ezarritakoaren arabera.

**CUOTA**

**Artículo 9.**

La cuota tributaria consistirá, conforme a lo establecido en el Anexo, en la cantidad resultante de aplicar una tarifa, una cantidad fija señalada al efecto, o la cantidad resultante de la aplicación conjunta de ambos procedimientos.

**SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

**10. artikulua.**

Zerbitzua edo jarduera egiten denean sortzen da tasa.

**DEVENGO Y PERÍODO IMPOSITIVO**

**Artículo 10.**

La tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad.

**LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

**11. artikulua**.

Udal Administrazioak kontzeptu bakoitzaren likidazioa egingo du eta likidaturiko kopurua ordainduko da Eranskinak exakzio bakoitzerako ezartzen dituen arau partikularrei jarraituz.

**TASEN KUDEAKETA**

**12. artikulua.**

Aldizkako epemuga duten zorrak eta kolektiboki jakinarazi beharreko zorretan, subjektu pasiboak ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu badu eta Udalak onartu badio, ez da berandutza interesik exijituko. Onura hori lortzeko beharrezkoa izango da ordainketa, tasa sortu den ekitaldian egitea.

Ordenantza honetan arautzen diren tasak likidatu, bildu eta ikuskatzeari dagokion guztian, eta, halaber, zerga urrapenak kalifikatu eta kasu bakoitzean dagozkien zigorrak ezartzearakoan, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean jasotakoa aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina, Udalbatzarrak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

**LIQUIDACIÓN E INGRESO**

**Artículo 11.**

La entidad local practicará la liquidación que proceda por cada concepto, ingresándose la cantidad liquidada, conforme a las normas particulares de cada exacción contenidas en el Anexo.

**GESTIÓN DE LAS TASAS**

**Artículo 12.**

En las deudas de vencimiento periódico y notificación colectiva, no se exigirán intereses de demora cuando, habiendo sido solicitado por el sujeto pasivo en período voluntario, el ayuntamiento le haya concedido el aplazamiento o fraccionamiento de pago. Para la obtención de este beneficio será preciso que el pago de la tasa se produzca en el mismo ejercicio que el de su devengo.

En todo lo relativo a la liquidación, recaudación e inspección de las tasas reguladas por esta Ordenanza, así como la calificación de las infracciones tributarias y determinación de las sanciones que correspondan en cada caso, será de aplicación lo previsto en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ordenanza, junto con su Anexo, fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 2 de noviembre de 2021, entrará en vigor el día 1 de enero de 2022, y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

| ERANSKINA | | ANEXO |
|---|---|---|
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| 1. POLIKIROLDEGI, PILOTALEKUAK ETA UDAL INSTALAZIOAK | | 1. POLIDEPORTIVOS, FRONTONES E INSTALACIONES MUNICIPALES: |
| Partikularrek pilotalekua alokatzea, eguneko | 765,00 | - Alquiler del frontón para particulares, día |
| - Partikularrek pilotalekua alokatzea, egun erdirako | 357,00 | - Alquiler del frontón para particulares, medio día |
| - Herritarrek, pilotalekua erreserbatzea, orduko (pilota, pala, frontenis). | 9,00 | - Reserva frontón para vecinos, hora (pelota, pala, frontenis). |

| | | |
|---|---|---|
| - Herrikoak ez direnek, orduko (pilota, pala, frontenis). | 17,00 | - Reserva frontón, no vecinos, hora (pelota, pala, frontenis). |
| -Futbitorako frontoia erreserbatzea, herritarrek | 16,00 | - Reserva frontón para futbito vecinos hora |
| -Futbitorako frontoia erreserbatzea, kanpotarrek | 32,00 | - Reserva frontón para futbito no vecinos hora |
| Erreserba guztietan kirol txartelarekin %15eko deskontua (ez alokairuetan). | | Descuento del 15% con la kirol txartela en todas las reservas (no en alquileres). |
| - Dutxa (bazkideak ez direnak)<br>Kirol txartelarekin dohainik | 2,30 | - Ducha (no socios)<br>Gratis con la kirol txartela. |
| - Gimnasioko kuotak.<br>Hileko abonua<br>Hiru hileko abonua<br>Urteko abonua (gehi igerilekua)<br>Eguneko sarrera<br>Sauna, 10 saioko bonua (kirol txartelarekin dohainik) | <br>29,00<br>69,00<br>258,00<br>6,00<br>23,00 | - Cuotas gimnasio:<br>Abono mensual<br>Abono trimestral<br>Abono anual (más piscina)<br>Entrada diaria<br>Bono de 10 sesiones sauna (gratis con la kirol txartela) |
| Urteko familia-bonua gehi igerilekua (ezkondu eta 18 urtetik gorako seme-alabak. Hauek bonuan sartzeko, gurasoekin bizi eta ikasten edo langabezian egon behar dute):<br>Lehen kidea.<br>Familiako bigarren kidea eta hurrengoak pertsonako | 258,00<br>129,00 | Bono familiar anual más piscina (matrimonio e hijos mayores de 18 que convivan en el domicilio familiar y sean estudiantes o estén en condición de parados):<br>Primer miembro.<br>Segundo miembro de la familia y posteriores por persona. |
| - Ikastaroak<br>Bazkideak (hilabetea)<br>Bazkideak ez direnak (hilabetea) | <br>25,00<br>38,00 | - Cursillos<br>Socios (mes)<br>No socios (mes) |
| - Zenbait taldeei eskolako gimnasioan gaua pasatzeagatik (kide eta gaueko; begiraleak ez dute ordainduko) | 5,00 | - Pernoctaciones de grupos en el gimnasio de la escuela (por persona, no abonándolo las/los monitoras/es) |
| | | |
| 2. HERRIKO FESTATAN, BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA. | | 2. TASA POR EL OTORGAMIENTO DE LICENCIA, EN FIESTAS PATRONALES |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| a) Herriko jaietan, edaritegi, taberna, edo antzekoak leku pribatuan irekitzeko baimena emateagatik, TASA, herriko elkarte edo taldeei. | 484,54 | a) Para instalación de bares, txosnas y similares, para grupos o asociaciones u otras entidades, utilizando instalaciones o bienes particulares. |
| b) Herriko jaietan, Iharduera iraunkorra duten taberna publikoei, haunditzeko baimena emateagatik TASA, leku edo zoru pribatua erabiliz. | 359,05 | b) Para ampliación de bares, tabernas con actividad continua, utilizando instalaciones o bienes particulares. |
| c) Herriko jaietan, garbiketa bereziengatik, iharduera iraunkorra duten tebernei TASA | 179,82 | c) Por trabajos de limpieza en general, con motivo de las fiestas patronales, aplicable a los bares con actividad continua.<br>Quedarían fuera de este concepto los sujetos pasivos |

| | | |
|---|---|---|
| Zernolako honetatik kanpo geratako lirateke a) eta b) ataletan sartzen diren sujeto pasiboak, era berean, Herri-lurra okupatzeagatiko Prezio Publikoa ordaintzen duten taberna eta txoznak ere. | | comprendidos en los apartados a) y b); de igual forma los bares y txoznas que pagan el Precio Público por ocupación de suelo público. |
| | | |
| 3. UDAL HILERRIKO ZERBITZUAK ESKAINI ETA EMATEAGATIKO TASA. | | 3. TASA POR LA PRESTACIÓN Y CONCESIÓN DE SERVICIOS DE CEMENTERIO MUNICIPAL. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Herritarren ehorzketa udal nitxoetan | 64,68 | Entierro de vecinos en nichos municipales |
| Kanpotarren ehorzketa udal nitxoetan | 193,80 | Entierro de no vecinos en nichos municipales |
| | | |
| 4. ETXEZ ETXE ZABORRAK ETA HIRI ONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEAGATIKO TASA. | | 4. TASA POR RECOGIDA DE BASURAS A DOMICILIO Y RESIDUOS URBANOS. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Jendea bizi deneko etxebizitza | 209,48 | Casa habitada |
| Jendea bizi ez den etxebizitza | 119,02 | Casa deshabitada |
| Landalurrean kokatutako baserri edo etxebizitzak | 104,06 | Caseríos o viviendas ubicadas en suelo rural |
| Jendea bizi ez den baserria | 58,05 | Caseríos deshabitados |
| Udalerrian kokaturiko jatetxeak eta otorduak ematen dituzten tabernak | 786,18 | Restaurantes ubicados en el término municipal y bares que sirvan comidas |
| Industriak jarduerareikin | | Industrias con actividad |
| 4 gurpileko errefus edukinontziarekin | 1.005,90 | Con contenedor de fracción resto de 4 ruedas |
| 2 gurpileko errefus edukinontziarekin | 704,14 | Con contenedor de fracción resto de 2 ruedas |
| Errefus edukinontzirik gabe | 528,09 | Sin contenedor de fracción resto |
| Taberna/Dendak | 366,69 | Bares/Tiendas |
| Langile bakar bateko enpresa edo autonomoak | 216,84 | Enpresas de un solo trabajador o autónomos |
| Hutsik dauden industria pabilioiak | 208,27 | Pabellones industriales vacios |
| | | |
| 5. HIRIGINTZA BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA. | | 5. TASA POR LA TRAMITACIÓN DE OTORGAMIENTO DE LICENCIAS URBANÍSTICAS. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Proiekturik behar ez duen lana | 33,95 | Obras que no requieran proyecto |
| Proiektua behar duen lana | 163,44 | Obras que requieran proyecto técnico |
| Bereizte baimenak | 25,15 | Licencias de segregación |

| | | |
|---|---|---|
| Partikular baten eskariz, hirigintza espediente bat tramitatzea: | | Tramitación de expedientes urbanísticos a instancia de particulares: |
| Xehetasun azterlana | 1346,70 | Estudios de Detalle |
| Urbanizazio Proiektua | 1346,70 | Proyectos de Urbanización |
| Arau Subsidiarioen Aldaketa | 2020,08 | Modificación de N.N.S.S. |
| Hondamen Espedientea | 1077,35 | Expediente de ruina |
| Aurreko hiru ataletan agertzen ez diren gainerako hirigintza espedienteak | 718,21 | Demás expedientes urbanísticos no contenidos en los apartados anteriores |
| | | |
| 6. TAXI BAIMENAK EMATEAGATIKO TASA. | | 6. TASA POR EL OTORGAMIENTO DE LICENCIAS DE TAXI. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| 1.- Baimenaren Udal emakida bakoitzeko | 359,10 | 1.- Por cada licencia de auto-taxi |
| 2.- Baimenaren erabilpena eta ustiapena urtean | 17,91 | 2.- Uso y explotación de licencias, por año |
| 3.- Baimendutako ibilgailuen aldaketa | 26,91 | 3.- Sustitución de vehículo autorizado |
| 4.- Baimenaren eskualdaketa | 359,10 | 4.- Transmisión de licencias |
| | | |
| 7. JARDUERA ESPEDIENTEAK IZAPIDETZEAGATIKO TASA. | | 7. TASA POR LA TRAMITACIÓN DE EXPEDIENTES DE ACTIVIDAD. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Jarduera sailkatuen baimena behar duten jarduera sailkatuak: | | Actividades clasificadas sujetas a licencia de actividad clasificada. |
| Merkataritza | 448,89 | Comercios |
| Industria eta ostalaritza | 862,63 | Industria y hosteleria |
| Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak | 862,63 | Servicios, garajes y otros |
| Jarduera sailkatuen baimena eman eta aurretiazko komunikazioa aurkeztu eta ondorengo egiaztatzea egitea, jarduera sailkauten baimena behar duten jardueren kasuan. | | Realización de la actividad de verificación posterior al otorgamiento de la licencia de actividad clasificada y presentación de la comunicación previa, en el caso de actividades sujetas a la licencia de actividad clasificada: |
| Merkataritza | 148,59 | Comercios |
| Industria eta ostalaritza | 287,74 | Industria y hosteleria |
| Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak | 287,74 | Servicios, garajes y otros |
| Sektoreko legerian jasotako baldintzak bete izana egiaztatzeko jarduera egitea, aurretiazko baimen edo kontrolari lotuta ez dauden jarduerak direnean: | | Realización de la verificación del cumplimiento de los requisitos establecidos en la legislación sectorial cuando se trate de actividades no sujetas a autorización o control previo: |

| | | |
|---|---|---|
| Merkataritza | 224,41 | Comercios |
| Industria eta ostalaritza | 448,89 | Industria y hosteleria |
| Zerbitzuak, garajeak eta gainerakoak | 224,41 | Servicios, garajes y otros |
| | | |
| 8. ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK EDUKITZEKO LIZENTZIA | | 8. LICENCIA DE TENENCIA DE ANIMALES POTENCIALMENTE PELIGROSOS. |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea | 13,66 | Concesión de licencia de tenencia de animales potencialmente peligrosos |
| Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritzea | 13,66 | Renovación de licencia de tenencia de animales potencialmente peligrosos |
| Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena ematea | 13,66 | Inscripción en el Registro de animales potencialmente peligrosos |
| | | |
| 9.UDAL IGERILEKUAK | | 9.PISCINAS MUNICIPALES |
| Kontzeptua | Euro<br>Euros | Concepto |
| Sarrera | | Entrada |
| Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean | 3,00 | Niñ@s; entre 3 y 14 años |
| Helduak; 15 urtetik gorakoak | 5,00 | Adultos; mayores de 15 años |
| Denboraldiko abonu pertsonala | | Abono de temporada personal |
| Haurrak: 3tik 14 urtera bitartean | 28,00 | Niñ@s; entre 3 y 14 años |
| Helduak; 15 urtetik gorakoak | 39,00 | Adultos; mayores de 15 años |
| Familiako abonua | | Abono familiar |
| Haurrik gabeko bikotea | 67,00 | Matrimonio o pareja de hecho sin hijos |
| Seme-alaba bat duten bikoteak * | 72,00 | Matrimonio o pareja de hecho con 1 hij@* |
| Bi seme-alaba edo gehiago dituzten bikoteak * | 78,00 | Matrimonio o pareja de hecho con 2 o más hij@s* |
| Guraso bakarreko familia | 56,00 | Familia monoparental |
| (* 20 urtera bitarteko ikasleak diren seme-alabak) | | (* Hij@s estudiantes de hasta 20 años) |
| 10. ZEGAMAKO UDALEKO LANGILE IZATEKO HAUTAPEN PROBETAN PARTE HARTU NAHI DUTENEI EMAN BEHARREKO ZERBITZUENGATIK TASA.<br><br>Kuota. Izangai bakoitzak 20 euroko kuota ordaindu beharko du. | 20 | 10. TASA DE LOS SERVICIOS NECESARIOS PARA LA REALIZACIÓN DE PRUEBAS SELECTIVAS DE ACCESO A LA CONDICIÓN DE PERSONAL DEL AYUNTAMIENTO DE ZEGAMA.<br><br>La cuota a satisfacer por cada persona aspirante será |

| | | |
|---|---|---|
| Tasaren ordainketa nominala izango da, indibidualizatua hautapen prozesu bakoitzeko, eta prozesu batean plaza bat baino gehiago badaude, ordainketa bat egin beharko da izena ematen den bakoitzerako, baldin eta hasierako ariketa diferentziatuta badago. | | de 20 euros.<br><br>La tasa se abonará de forma nominal e individualizada para cada proceso selectivo y, en aquel en que haya varias plazas, por cada plaza a la que se opte, siempre que cada una de ellas tenga un primer ejercicio diferenciado. |

## 8. Gizarte zerbitzuetako erabiltzaileen ekarpen ekonomikoak arautzen dituzten ordenantza.

### 8.1. Balioanitzeko landa- zentroan ematen diren zerbitzuen ekarpenak

**8.1.1. Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren, urriaren 6koaren, I. eranskineko (1.9.3) adinekoentzako egoitza-zentroak, eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen, apirilaren 7koaren, 1. xedapen iragankorra: Eguneko egoitza: 10 hitzartutako plaza/ 13 plaza pribatu.**

**1. Artikulua.**

Udal-eskumeneko zerbitzua da, baterako ordainketari lotua. Erabiltzaileek diru-ekarpena egiteko araubidea egonaldia-ren baldintza ekonomikoei buruz Zegamago Udalak erabil-tzaileekin izenpetutako hitzarmenek eta izapidetzen ari den eguneko zentroaren funtzionamenduko ordenantzak arautuko dute.

**2. Artikulua.**

Zerbitzua eskuragarri dute honakoek:

1. 60 urte edo gehiago duten pertsonek, autonomia pertsonalerako zailtasunak badituzte, Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak egindako aldeko diagnostikoaren edo balorazioaren arabera.

2. 60 urte edo gehiago duten pertsonek, mendekotasun-egoeran badaude, Udalaren Gizarte Zerbitzuen Sailak egindako aldeko diagnostikoaren edo balorazioaren arabera.

Horrez gain, eskatzailea Zegama, Segura, Zerain edo Mutiloako udal-mugartetan erroldatuta egon

## 8. Ordenanza reguladoras de las aportaciones económicas de los/as usuarios/as de los servicios sociales

### 8.1. Aportaciones en los servicios del centro rural polivalente

**8.1.1. Centros residenciales para personas mayores (1.9.3) del anexo 1 del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de servicios sociales y el artículo 17.13 y la Disposición Transitoria 1.ª de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi: Centro de día: 10 plazas públicas/ 13 plazas privadas.**

**Artículo. 1**

Es un servicio de competencia municipal sujeto a copago. El régimen de la aportación económica de las personas usuarias se regirá por los convenios particulares que suscribe el Ayuntamiento de Zegama con los/as usuarios/as sobre las condiciones económicas de la estancia y por la Ordenanza de funcionamiento del centro de día en tramitación.

**Artículo 2.**

Pueden acceder al servicio:

1. Las personas de o mayores de 60 años, con dificultades en su autonomía personal, según diagnostico o valoración favorable del departamento de Servicios Sociales municipal.

2. las personas de o mayores de 60 años, en situación de dependencia, según diagnostico o valoración favorable del departamento de Servicios Sociales municipal.

Además, el/la solicitante deberá estar empadronado/a con un año de antelación a la

behar da, eskaera egin baino urtebete lehenagotik.

fecha de solicitud, en el término municipal de Zegama, Segura, Zerain o Mutiloa.

**3. Artikulua.**

3. Ekarpen ekonomikoa plaza kontzertatuentzat Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Zegamako Udalak hitzarmen bitartez ezarritako tarifa asistentzialaren %60a izango da.

**Artículo 3.**

La aportación económica será el 60% de la tarifa asistencial determinada por la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Zegama para las plazas concertadas; según convenio aprobado anualmente.

**4. Artikulua.**

Hileko zenbatekoaren zati galdagarriaren ordainketa likidazioa kobratzeko aurkezten den unean gauzatuko da; ordainketa Zegamako Udalari egingo zaio, bera baita zerbitzuaren kudeaketarako erakunde eskuduna.

Zorrak premiamendu bidezko administrazio-prozeduraren bidez galdatzeko aukera egongo da, zorraren muga-egunetik bi hilabete igaro ondoren ez bada lortu kobratzea, horretarako kudeaketa egokiak egin arren (likidazioen jakinarazpena).

**Artículo. 4.**

El abono de la parte de la aportación exigible en cada mensualidad se efectuará en el momento de presentación al cobro de la liquidación; el abono se realizará al Ayuntamiento de Zegama, entidad competente para la gestión del servicio.

Las deudas podrán exigirse mediante el procedimiento administrativo de apremio, cuando hayan transcurrido dos meses desde su vencimiento sin que se haya podido conseguir su cobro pese a haberse realizado las gestiones oportunas (notificación de las liquidaciones).

**5. Artikulua.**

Sortzapen, ordainketa, berme, uko egite, zorren onar-pen, zatikapen, gerorapen eta gainerako gai ekonomikoekin zerikusia duten kontuetarako, honako araura jotzeko aipamena egin da: ekainaren 2ko 15/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun-egoeran daudenentzat arreta-zentroen erabiltzaileen ekarpen ekonomikoa arautzen duena.

| EGUNEKO ZENTROA KONTZERTATU GABEKO PLAZAK | |
|---|---|
| Lanegunak | |
| Arreta tarifa | 53,05 |

**Artículo. 5.**

Para las cuestiones relacionadas con el devengo, pago, garantías, renuncias, reconocimientos de deudas, fraccionamientos, aplazamientos y demás cuestiones económicas se efectúa remisión normativa al Decreto Foral 15/2015, de 2 de junio, por el que se regula el régimen de la aportación económica de las personas usuarias de los centros de atención a la dependencia en el Territorio Histórico de Gipuzkoa.

| CENTRO DE DÍA PLAZAS NO CONCERTADAS | |
|---|---|
| Días laborables | |
| Tarifa asistencial | 53,05 |

**8.1.2. Komunitate- etxebizitza: 1; 6 plaza dituelarik**

**6. Artikulua.**

Baterako ordainketari lotutako udal eskumeneko zerbitzua da.

**7. Artikulua.**

Zerbitzua hau erabiliko dute:

1. I graduko mendetasun-egoeran dauden 65.

**8.1.2. Vivienda comunitaria: 1, con 6 plazas**

**Artículo. 6.**

Es un servicio de competencia municipal sujeto a copago.

**Artículo. 7.**

Pueden acceder al servicio:

1. Las personas de o mayores de 65 años en

urteko edo 65tik gorako adinekoak, baldin eta:

a) erreferentziazko profesionalaren balioespenaren arabera, egonaldi luzeko edo etengabeko egonaldiko (edo, salbuespenez, aldi baterako) ostatu-alternatiba bat behar badute irisgarritasunari eta/edo bizigarritasunari dagokionez ostatu-alternatiba egokirik ez dutelako, eta/edo bizikidetza-arazoak edo bakardade-arazoak (gizarte-isolamendua) dituztelako;

b) intentsitate txikiko laguntzak behar dituzte, komunitate-ingurunean bizimodu autonomoa egitea ahalbidetuko dieten harreman-arloko trebetasunei eusteko edo trebetasun horiek garatzeko, eta, hala badagokio, eguneroko bizitzako jarduerak egiteko.

2. I gradutik gorako mendetasun-egoeran dauden 65. urteko edo 65tik gorako adinekoak, baldin eta Gizarte Zerbitzuetako udal departamenduak aldeko diagnosia eta balorazioa egin badu.

3. 185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, arautzen ditu zerbitzua erabiltzeko funtsezko baldintzak.

4. Ezarriko dira etxez etxeko laguntzearen zerbitzuari dagozkion prezio publikoak-ELZ eta zerbitzu osagarriak. Hilabetero egingo da kobrantza eskatutako eta balioetsitako prestazioaren arabera eta betiko kitapena egingo da urte bukaeran edo zerbitzua emateari uzten diotenean.

5. Zegamako Udaleko departamenduak zehaztuko du ekarpen ekonomikoa eta kalkulatuko du gaitasun ekonomikoaren arabera, erabiltzaileari erabilera libreko gutxieneko kopuru hau bermatu beharko duelarik: urteko Lanbide arteko Gutxieneko Soldataren %35.

Erabiltzaileak finantzatzen ez duen zerbitzuko plazaren kostuaren zatia, Zegamako Udalak finantzatuko du.

6. Hilero ordaindu beharreko ekarpen zatia ordainduko da kitapena kobratzeko aurkezten duen momentuan; ordainketa egingo zaio Zegamako Udalari, zerbitzua emateko eskumena duen entitateari, zerbitzuak emate arautzen duten planek

situación de dependencia (Grado I) que:

a) de acuerdo con la valoración de la o del profesional de referencia, requieren una alternativa de alojamiento, de larga estancia o permanente (o, excepcionalmente, temporal) por carecer de una alternativa de alojamiento adecuada, en condiciones de accesibilidad y/o habitabilidad, y/o tener problemas de convivencia o soledad (aislamiento social);

b) precisan apoyos, de baja intensidad, para mantener o desarrollar habilidades relacionales que posibiliten su vida autónoma en el entorno comunitario, y, en su caso, para realizar actividades de la vida diaria.

2. Las personas de o mayores de 65 años en situación de dependencia superior a Grado I según diagnóstico o valoración favorable del departamento de Servicios Sociales municipal.

3. Las condiciones básicas de acceso al servicio están reguladas en el Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.

4. Serán de aplicación los precios públicos correspondientes al servicio de atención a domicilio –SAD y los servicios complementarios. El cobro se efectuará mensualmente en base a la prestación demandada y estimada del servicio, practicándose la liquidación definitiva al final del año o cuando cese la prestación del servicio.

5. La aportación económica será determinada por el departamento de Servicios Sociales del Ayuntamiento de Zegama y se calcula según la capacidad económica y garantizando al/la usuario/a la libre disposición del 35% del Salario Mínimo Interprofesional anual.

La parte correspondiente al coste de la plaza del servicio no financiada por la persona usuaria será financiada por el Ayuntamiento de Zegama.

6. El abono de la parte de la aportación exigible en cada mensualidad se efectuará en el momento de presentación al cobro de la liquidación; el abono se realizará al Ayuntamiento de Zegama, entidad competente de la prestación del servicio con arreglo a los planes y normas de prestación del

eta araudiak xedatutakoaren arabera.

7. Zorrak premiamenduzko bidea erabiliz ordainarazi ahalko dira, ordainketaren epe-mugatik 2 hilabete igaro ondoren eta nahiz eta kudeaketa egokiak (kitapenen jakinarazpenak) aurretiaz egin, kobrantza lortu ezinean.

servicio.

7. Las deudas podrán exigirse mediante el procedimiento administrativo de apremio cuando hayan transcurrido dos meses desde su vencimiento sin que se haya podido conseguir su cobro pese a haberse realizado las gestiones oportunas.

| Kuotak | € | Cuotas |
|---|---|---|
| Kontzeptua | | Concepto |
| Zerbitzuaren eguneko kuota, garraioa barne……….. 17,43 | | Cuota del servicio incluido el transporte ……………. 17,43 |
| JANGELA SOZIALA<br>Jangelaren eguneko menuaren kostua …………………. 5,66 | | COMEDOR SOCIAL<br>Costo del menú del día ………………………………………. 5,66 |
| BABESTURIKO ETXEBIZITZA<br>Hileroko kuota, zerbitzu guztiak barne ………………. 745,00 | | PISO TUTELADO<br>Cuota mensual, incluidos todos los servicios ………. 745,00 |

**8.2 Etxez etxeko laguntza zerbitzua**

**8. Artikulua. Esparrua**

Arautegi hau etxez etxeko laguntza zerbitzuari aplikatuko zaio, izan zerbitzua zuzeneko kudeaketa erregimenekoa nahiz beste erakunde publiko batzuekiko hitzarmen bidezkoa edo beste erakunde pribatu batzuekiko itun, hitzarmen edo kontratu bidezkoa.

**9. Artikulua. Ordaintzera behartuta dauden pertsonak**

Prezio publikoa ordaintzera behartuta daude:

a) Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren zuzeneko onuradun diren pertsona fisikoak, non eta ez dauden 1. paragrafo honetako b) eta c) ataletan aipatzen diren egoeretan.

b) Zerbitzuaren erabiltzaileak adingabeak badira, haien gaineko guraso agintea, tutoretza edo zaintza duen/duten pertsona/pertsonak.

c) Pertsona helduak, zerbitzura sartzeko arautegian aurreikusitako moduan legezko ordezkari edo izatezko zaintzaile bidez dihardutenean; hala ere, kasu horretan, ordezkatutako pertsonaren errentaren eta ondarearen kontura egingo da ordainketa, eta

**8.2. Servicio de atención a domicilio**

**Artículo 8. Ámbito**

La presente normativa será de aplicación al Servicio de Ayuda a Domicilio, bien en régimen de gestión directa, bien en régimen de convenio con otras entidades públicas, bien en régimen de concierto, convenio o contrato con entidades privadas

**Artículo 9. Personas obligadas al pago**

Estarán obligadas al pago del precio público:

a) Las personas físicas que se beneficien directamente del Servicio de Ayuda a Domicilio, cuando no se encuentren en los supuestos de los apartados b) y c) del presente párrafo 1.

b) Cuando las personas usuarias del servicio sean personas menores de edad estará/n obligada/s al pago la persona o personas que ostente/n la patria potestad, la tutela o la custodia.

c) En el caso de las personas adultas, cuando actúen a través de representante legal o guardador/a de hecho en los términos previstos en la normativa de acceso, estarán obligadas al pago estas últimas, si bien, en tales casos el pago se hará con cargo a la renta y el patrimonio de la persona

ordezkatutako pertsonaren ahalmen ekonomikoa hartuko da kontuan.

d)Zerbitzuan sartzeko eskaria egin aurreko bost urteetan erabiltzaileak doan egindako ondare eskualdatze baten edo gehiagoren onuradun izan diren pertsonak, baldin eta zerbitzuaren titularrak ezin badio aurre egin legokiokeen prezio publikoaren ordainketari, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen 57.6 artikuluan adierazitakoari jarraituz.

representada y la capacidad económica computada será la de la persona representada.

d) Las personas que se hayan visto favorecidas por una o varias transmisiones patrimoniales, realizadas a título gratuito por la persona usuaria, en los cinco años inmediatamente anteriores a la solicitud de acceso al servicio, cuando la persona titular del servicio no pueda hacer frente al pago del precio público que le pudiera corresponder, tal y como se recoge en el artículo 57.6 de la Ley 12/2008 de Servicios Sociales.

**10. Artikulua. Prezio publikoa**

Gehienezko prezio publiko hau aplikatuko zaie erabiltzaileei:

**Artículo 10. Precio público**

El precio público máximo aplicable a las personas usuarias es la siguiente:

| | | |
|---|---|---|
| Laneguneko eta jai-eguneko ordua | 15,00 €. | Hora en día laborable y festivo |

**11. Artikulua. Ekarpenen koadroa**

Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena:

Erabiltzaileak zerbitzuaren kostuari egin beharreko ekarpena honako ekarpen koadro honen arabera zehaztuko da:

| *EAEAP sarrerak* | *Ekarpena* |
|---|---|
| EAEAPren ≤%120 | %1,5 |
| >%120-125 | %4 |
| >%125-130 | %8 |
| >%130-150 | %15 |
| >%150-175 | %24 |
| >%175-200 | %35 |
| >%200-225 | %48 |
| >%225-250 | %61 |
| >%250-275 | %74 |
| >%275-300 | %87 |
| EAEAPren >%300 | %100 |

**Artículo 11. Cuadro de aportaciones**

La aportación del usuario del servicio:

La aportación de la persona usuaria sobre el coste del servicio vendrá determinada por el siguiente cuadro de aportaciones:

| *Ingresos IPREM* | *Aportación* |
|---|---|
| ≤120% IPREM | 1,5% |
| >120%-125% | 4% |
| >125%-130% | 8% |
| >130%-150% | 15% |
| >150%-175% | 24% |
| >175%-200% | 35% |
| >200%-225% | 48% |
| >225%-250% | 61% |
| >250%-275% | 74% |
| >275%-300% | 87% |
| >300% IPREM | 100% |

**12. Ondarea zenbatzea**

Familia unitateko kideen arabera, gehienezko honako ondare muga hauek ezartzen dira.

**Artículo 12. Contabilización del patrimonio**

Se establecen los siguientes límites patrimoniales en función del número de miembros de la unidad

familiar.

Muga horiek gainditzen ez badira, aurreko taula aplikatuko zaie; muga horiek gaindituz gero, berriz, prezio publikoaren %100 ordainduko dute.

Si no se superan dichos límites se les aplicará la tabla anterior, y si se superan dichos límites abonarán el 100% del precio público.

| Kide kopurua | Gehienezko ondarea |
|---|---|
| 1 | 50.000.-€ |
| 2 | 70.000.-€ |
| 3 edo gehiago | 85.000.-€ |

| Nº miembros | Máximo patrimonial |
|---|---|
| 1 | 50.000.-€ |
| 2 | 70.000.-€ |
| 3 ó mas | 85.000.-€ |

**13. Libreki erabiltzeko zenbatekoa**

Libreki erabiltzeko zenbatekoa izango da IPREMaren %120ri dagokion zenbatekoa. Baldin eta familia edo bizikidetza unitateko kideen kopurua bat baino handiagoa bada, IPREMaren %40 gehituko zaio zenbateko horri bigarren kideagatik eta IPREMaren %25 gainerako kideetako bakoitzagatik.

**Artículo 13. Cuantía de libre disposición**

Se considerará como cuantía de libre disposición el importe referenciado al 120% del IPREM. Si el número de integrantes de la unidad familiar o de convivencia fuere superior a uno, se añadirá a dicha cuantía el 40 % del IPREM por el segundo miembro y un 25% del IPREM por cada uno de los restantes miembros.

**14. Kobrantza**

Zerbitzua hilero kobratuko da, emandako zerbitzuaren arabera.

**Artículo 14. Cobro**

El cobro se efectuará mensualmente en base a la prestación efectiva del servicio.

**15. Ekarpenak berrikustea**

Gutxienez bi urtean behin egingo da zerbitzuaren erabiltzaileen egoera ekonomikoa eta ondarezkoaren berrikuspena.

**Artículo 15. Revisión de aportaciones**

Se efectuará, como mínimo, cada dos años la revisión de la situación económica-patrimonial de las personas usuarias del servicio.

**8.3. 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa, 1. eranskina: Ostatu-zerbitzuak: 1 LARRIALDIETAKO ETXEBIZITZA**

8.3.1. Harrera-etxebizitza (1.9.1)

8.3.2. Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat (1.9.2)

**8.3. SERVICIO DE ALOJAMIENTO del Anexo 1 del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales: 1 VIVIENDA-PISO DE EMERGENCIA**

8.3.1. Piso de acogida (1.9.1)

8.3.2. Vivienda tutelada para personas en riesgo de exclusión (1.9.2)

**16. Artikulua.**

1. Baterako ordainketari lotutako udal eskumeneko zerbitzua da. Doako zerbitzua izango da genero-indarkeriaren biktima diren emakumezkoentzat. Gainontzeko kasuetan, erabiltzailearen gaitasun ekonomikoa aintzta hartuta, Udalak prezioa kobratu ahal izango du.

2. Etxebizitza osoaren hileko prezioa 200 €koa da

**Artículo 16.**

1. Es un servicio sujeto a copago de competencia municipal. Será gratuito para las mujeres víctimas de la violencia machista. En los demás casos, el Ayuntamiento podrá cobrar el precio teniendo en cuenta la capacidad económica del/la usuario/a.

2. El precio mensual de la vivienda en su totalidad

eta erabiltzaileek ordainduko dute erabiltzen duten gela-kopuruaren arabera.

es de 200 € y será abonado por las personas usuarias en función del número de habitaciones que utilice.

3. Hilero ordaindu beharreko ekarpen zatia ordainduko da kitapena kobratzeko aurkezten duen momentuan; ordainketa egingo zaio Zegamako Udalari, zerbitzua emateko eskumena duen entitateari, zerbitzuak emate arautzen duten planek eta araudiak xedatutakoaren arabera.

3. El abono de la parte de la aportación exigible en cada mensualidad se efectuará en el momento de presentación al cobro de la liquidación; el abono se realizará al Ayuntamiento de Zegama, entidad competente para la gestión del servicio.

Zorrak premiamenduzko bidea erabiliz ordainarazi ahalko dira, ordainketaren epe-mugatik 2 hilabete igaro ondoren eta nahiz eta kudeaketa egokiak (kitapenen jakinarazpenak) aurretiaz egin, kobrantza lortu ezinean.

Las deudas podrán exigirse mediante el procedimiento administrativo de apremio cuando hayan transcurrido dos meses desde su vencimiento sin que se haya podido conseguir su cobro pese a haberse realizado las gestiones oportunas (notificación de las liquidaciones).

Ordenantza hau Udalbatzarrak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

La presente Ordenanza, fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 2 de noviembre de 2021, entrará en vigor el día 1 de enero de 2022, y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

## 9. Zerbitzuak eskaintzeagatiko edo udal jarduerak egiteagatiko prezio publikoen ordenantza arautzailea

## 9. Ordenanza reguladora de los precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades municipales

### I. XEDAPEN OROKORRAK

### I. DISPOSICIONES GENERALES

**1. Artikulua.**

Eranskineko tarifetan zehaztutako zerbitzuak eskaintzeagatiko edo jarduerak egiteagatiko prezio publikoak ezartzen eta eskatzen dira, eta Ordenantza honek dituen arauen arabera, hau osatzen dutenak.

**Artículo 1.**

Se establecen y exigen precios públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades especificadas en las tarifas del Anexo, y según las normas contenidas en esta Ordenanza, de las que aquéllas son parte integrante.

**2. Artikulua.**

Ordenantza udalerri osoan aplikatzen da.

**Artículo 2.**

La Ordenanza se aplica en todo el término municipal.

### II. ZERGA GAIA

### II. HECHO IMPONIBLE

**3. Artikulua.**

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak zerbitzu edo jarduerei etekina ateratzen dietenak ordainduko dituzte.

**Artículo 3.**

Los precios públicos regulados en esta ordenanza, se satisfarán por quienes se beneficien de los servicios o actividades.

**III. SUBJEKTU PASIBOA**

**4. Artikulua.**

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoengatiko tarifak eranskinean agertzen direnak dira.

**5. Artikulua**

Eskatu ahal diren kantitateak eskaturiko edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eta bakoitzari dagokion epigrafean aipaturiko kantitateak ezin izango dira txikitu, prezio finkoa markatzen bada.

**IV. SALBUESPENAK, MURRIZPENAK ETA HOBARIAK**

**6. Artikulua.**

Ordenantza honetan biltzen diren zerbitzuak eskaintzeko edo udal jarduerak egiteko aurretik Udal Administrazioari eskatu behar izango zaio haien eskaintzea edo egitea. Aipaturiko zerbitzuak edo jarduerak emango dira Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaintzen badira. Prezio publikoa ordaintzen ez bada, automatikoki ezin izango da zerbitzua eskaini edo jarduera egin.

**V. OINARRI EZARGARRIA**

**7. Artikulua.**

Ordenantza honetan arauturiko prezio publikoak ordaintzeko beharra zerbitzuaren eskaintzea edo jardueraren egitea hasten denean sortzen da.

**VI. KUOTA**

**8. Artikulua.**

Prezio publikoaren ordainketa zerbitzu edo jarduera bakoitzeko Eranskinean zehazten den moduan egingo da.

**VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

**9. Artikulua.**

Prezio publikoa ordaindu behar duenari egozten ez zaizkion kausak direla eta. jarduera egiten ez denean, dagokion zenbatekoa itzuli behar izango da.

**III. SUJETO PASIVO**

**Artículo 4.**

Las tarifas por precios públicos regulados en esta ordenanza, son las que se contienen en el Anexo.

**Artículo 5.**

Las cantidades exigibles se satisfarán por cada servicio o actividad solicitados o realizados y serán irreducibles en las cuantías señaladas en los respectivos epígrafes, siempre que se marque precio fijo.

**IV. EXENCIONES, REDUCCIONES Y BONIFICACIONES**

**Artículo 6.**

Para la prestación de los servicios o realización de actividades municipales a que se refiere esta Ordenanza, se deberá solicitar previamente a la Administración Municipal la prestación o realización de los mismos. Dichos servicios o actividades se entenderán otorgadas, en todo caso, condicionados al pago de los precios públicos regulados en esta Ordenanza. La falta de pago del precio público determinará de forma automática la no prestación del servicio o realización de la actividad.

**V. BASE IMPONIBLE**

**Artículo 7.**

La obligación de pagar los precios públicos regulados en esta Ordenanza nace desde que se inicie la prestación del servicio o la realización de la actividad.

**VI. CUOTA**

**Artículo 8.**

El pago del precio público se realizará de la forma que se detalla en el Anexo por cada uno de los servicios o actividades.

**VII. DEVENGO Y PERIODO IMPOSITIVO**

**Artículo 9.**

Cuando por causas no imputables al obligado al pago del precio público no se realice la actividad, procederá la devolución del importe correspondiente.

**VIII. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA**

**10. Artikulua.**

Prezio publiko hauengatiko zorrak administrazio premiamendu bidez eskatu ahal izango dira.

**AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Udalbatzarrak 2021eko azaroaren 2an onartu zuen eta 2022ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den artean jarraituko du indarrean.

**ERANSKINA**

**A. Udal titulartasun eta jabetzako elementuen erabilerarako lagapenerako prezio publikoak**

**Tarifak aplikatzeko arauak:**

**1.Kontzeptua**

Uztailak 5eko 11/1989 Gipuzkoako Udal Zergei Foru Arau Orokorrak bere 43. artikuluan dioenez, Ordenantza honetan zehazten diren udal jabetzako elementuen erabilera arautzeko prezio publikoa ezartzen da.

**2. Zerga-egitatea**

Zerga-egitatea sortzen du Udal titulartasuneko elementu ezberdinen erabilera pribatu edo aprobetxamendu partikularrak.

**3. Ordaintzeko obligazioak**

Prezioaren ordainketara behartuak daude elementuen aprobetxamendua bere alde baimentzen den pertsona fisiko edo juridiko edo entitateak eta baita elementuen aprobetxamenduaren onuradun direnak ere.

Lagapen-hartzaileek, prezioa abonatzeaz gain, Zegamako Udalari itzuli beharko dio utzitako materiala eta hondatu, galdu, berandu itzulitakoak abonatu beharko ditu Ordenantza honek ezarritako moduan.

**4. Kudeaketa arauak**

1. Tarifaren araberako kopuru galdagarriek

**VIII. LIQUIDACION E INGRESO**

**Artículo 10.**

Las deudas por estos precios públicos podrán exigirse por el procedimiento administrativo de apremio.

**DISPOSICION FINAL**

La presente Ordenanza, fue aprobada por el Pleno de la Corporación el 2 de noviembre de 2021, entrará en vigor el día 1 de enero de 2022, y permanecerá vigente hasta que se acuerde su modificación o derogación.

**ANEXO**

**A. Precio público para la cesión de uso de elementos de titularidad y propiedad municipal**

**Normas de aplicación de las tarifas:**

**1. Concepto**

De acuerdo con el artículo 43. de la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa, se establece precio público para regular la cesión de uso de elementos de propiedad municipal que se determinan en las tarifas establecidas por esta Ordenanza.

**2. Hecho imponible**

Constituye el hecho imponible la utilización privada o aprovechamiento particular de diversos elementos de titularidad pública municipal.

**3.Obligaciones de pago**

Están obligados al pago del precio, las personas físicas o jurídicas o entidades a favor de las cuales se autoriza la utilización así como las que se beneficien del aprovechamiento de los elementos.

Los cesionarios, además de abonar el precio deberán devolver el material cedido al Ayuntamiento de Zegama y abonar los deterioros, pérdidas y retrasos en la devolución en la forma establecida por esta Ordenanza.

**4. Normas de gestión**

1. Las cantidades exigibles de acuerdo con la tarifa

entregaren aurretik likidatuak izan behar dute.

2. Interesdun pertsona edo entitateek 3 lan eguneko gutxieneko aurrerapenarekin aurkeztu beharko dute eskaera 3 días hábiles.

Behin eskaera baimendua izan denean, lagapen aldia zehaztuko da (justifikatutako kausengatik ez bada,

3. Elementu ezberdinak eskatzaile edo erakunde eskatzaileek eurek jaso eta itzuli beharko dituzte 9:00etatik 14:00etara bitarteko ordutegian.

4. Baimenek izaera pertsonala izango dute eta ezingo zaizkio hirugarren bati utzi. Agindu hau ez betetzeak baimena baliogabetuko du eta ordainketa egin beharko da utzitako elementu guztiak galdu edo hondatu izan balira bezala.

**5. Sortzapena**

Elementu eskaerak direnean, dagokion erabilera eskatzen den unean.

Tasaren ordainketa egingo da erabilpena hasi aurretik.

**6. Erabilgarritasuna**

Ordenantza honetan jasotako elementuen lagapena eskaera egiten den unean elementu horien erabilgarritasunaren araberakoa izngo da, eta Udalak herriko jaietan edo udal ekintzetan erabiltzeko beharraren araberakoa izango da.

**7. Iraupena**

Erabilerarako lagapenaren gehieneko iraupena 4 egunekoa izango da, kasu berezietan eta justifikatuta izan ezik .

**8. Salbuespenak**

Zegamago irabazi asmorik gabeko elkarteak salbuetsita daude, baita erea Udaletxe honetako diru laguntzak jasotzen dituztenak ere, jarduera herrian egiten badute.

Dena den, galera, hondatze edo berandutze kasuetan dagokion tarifa aplikatuko zaie.

tendrán que ser liquidadas antes de la entrega.

2. Las personas o entidades interesadas deberán presentar previamente solicitud con una antelación mínima de 3 días hábiles.

Una vez autorizada la petición, se determinará el período de cesión (no superior a cuatro días, salvo causas justificadas).

3. Los diversos elementos habrán de ser recogidos y entregados por los propios solicitantes o entidades interesadas en horario de 9:00 a 14:00.

4. Las autorizaciones tendrán carácter personal y no podrán cederse a terceros. El incumplimiento de este precepto provocará la anulación de la autorización y la obligación de pago, en concepto de penalización, de todos los elementos cedidos como si se hubieran sido objeto de pérdida o deterioro.

**5. Devengo**

Cuando se trata de solicitudes de elementos, en el momento de solicitar el uso correspondiente.

El pago de la tasa se realiza con carácter previo al uso.

**6. Disponibilidad**

La cesión de uso de elementos contemplados en esta Ordenanza se llevará a cabo conforme a la disponibilidad existente en el momento de la solicitud de uso, así como también se atenderán las necesidades de ordenación de elementos por el Ayuntamiento en los periodos de fiestas o actos locales.

**7. Duración**

La duración máxima de la cesión de uso es de 4 días, salvo casos especiales y justificados.

**8. Exenciones**

Las asociaciones municipales sin ánimo de lucro de Zegama quedan exentas, así como las que perciban subvención de este Ayuntamiento y realicen la actividad en este pueblo.

No obstante, les serán de aplicación las tarifas en caso de retraso en la entrega, pérdida o deterioro de los elementos.

| TARIFAS | | TARIFAK |
|---|---|---|
| Aulkiak eta mahaiak alokatzea | | Alquiler de mesas y sillas |
| Aulki bakoitzeko eta eguneko | 0,49 | Alquiler de silla/ día |
| Mahai bakoitzeko eta eguneko | 1,13 | Alquiler de mesa/día |
| Hesi bakoitzeko eta eguneko | 1,13 | Alquiler de vallas/día |

B. Fotokopiak egiteagatik eta fax zerbitzuarengatik prezioa.

B. Precio por realización de fotocopias y servicio de fax

| Kontzeptua | Prezioa orrialdeko/<br>Precio por hoja | Concepto |
|---|---|---|
| Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan | 0,20 € | Fotocopias en blanco y negro tamaño A4 |
| Fotokopiak koloretan A4 tamainan | 0,70 € | Fotocopias en color tamaño A4 |
| Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan | 0,40 € | Fotocopias en blanco y negro tamaño A3 |
| Fotokopiak koloretan A3 tamainan | 1,30 € | Fotocopias en color tamaño A3 |
| Inprimatzea | 0,30 | Imprimir |
| Fotokopiak kultur erakundeei Kultur Etxean | | Fotocopias a entidades culturales en la Kultur Etxea |
| Fotokopiak txuri beltzean A4 tamainan | 0,06 € | Fotocopias en blanco y negro tamaño A4 |
| Fotokopiak txuri beltzean A3 tamainan | 0,10 € | Fotocopias en blanco y negro tamaño A3 |
| Fax zerbitzua | 0,60 € | Servicio de fax |
| | | |

| | | |
|---|---|---|
| 3. DONEJAKUE BIDEKO ERROMES ETXEAREN ERABILPENA.<br><br>Pertsona eta gau bakoitzeko | 10 | 3.UTILIZACIÓN DE LA “ERROMES ETXEA” DEL CAMINO DE SANTIAGO.<br><br>Por noche y persona. |
| 4. Beste zenbait zerbitzuengatiko prezio publikoa.<br>4.1. Maratoiko kamiseten salmenta.<br>4.2.Hezkuntza, ongizate eta aisialdiko ikastaroen prezio publikoa irakaskuntza zerbitzuengatik.<br>Hiruhilekoa.<br>4.3. Jarduera ludiko-gastronomikoak:<br>4.3.1.”Herri afariko” tiketa.<br>Helduak.<br>Adingabeak<br>4.3.2. Sardina jatea.<br>4.3.3. Paella jatea. | 20<br><br>40<br><br>20<br>12<br>5<br>2 | 4. Precio público por otros servicios.<br><br>4.1 Venta de camisetas Maratón.<br>4.2 Precio público por servicios de enseñanza puntual de cursos de educación, bienestar y ocio.<br>Por trimestre.<br>4.3 Actividades lúdico-gastronómicas:<br>4.3.1 Ticket “cena popular”.<br>Adultos<br>Menores<br>4.3.2.Sardinada. |

| | | |
|---|---|---|
| 4.3.4. Hegaluze pintxoa. | 2 | 4.3.3. Paellada<br>4.3.4. Pintxo de hegaluze. |

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauan ezarritakoaren arabera, behin-behingo akordio hau, Udaletxe honetako iragarki oholean, 30 laneguneko epean jendaurren jarriko da, epe horren barnean, edonork, espedientea aztertu eta ondo deritzon erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Era berean, jendaurren jartze hori, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, epea, iragarkia argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasiko delarik.

Jendaurren egoteko legezko epea igaro ondoren, inolako erreklamaziorik jaso ez bada, hartutako akordio hauek, behin-betikotzat joko dira, inolako akordio berririk hartu behar izan gabe.

Hirugarrena.- Lehenengo puntuan jasotzen ez diren eta indarrean dauden zerga edo tasen kuota edo tipoak mantentzea.

Laugarrena.- 2023. urterako egutegi fiskala

1. 2023rako egutegi fiskala onartzea. Bertan zehazturiko aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinaraztekoak diren zorrak borondatez ordaintzeko epeak ondoko hauek izango dira:

URTEAN BEHIN ORDAINTZEKO TRIBUTUAK

| *Errolda* | *Ordaintzeko epea* |
|---|---|
| Trakzio mekanikoko ibilgailuak | 2023ko martxoaren 1etik apirilaren 10a arte.<br>. |
| Ondasun higiezinen gaineko zerga | 2023ko maiatzaren 14tik ekainaren 30a arte. |
| Ekonomia-jardueren gaineko zerga | 2023ko urriaren 1etik azaroaren 10a arte. |

2. Aurreko egutegi fiskalean zehazturiko ordainketa egiteko epeak, ezarritako egunean bukatuko dira edo hori jaieguna bada, hurrengo egunean.

3. Egutegi fiskal hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Udal honetako Iragarkien Oholetan kaleratuko da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Dirubilketa Araudia onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren 18. artikuluak aipatzen duen kobruetarako iragarki betekizuna bete ahal izateko.

4. Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Udal Ogasunen Araulzaileak, 14. artikuluko 1. zenbakian agindutakoa betez, errolda fiskalak, non ordaindu beharreko kuotak eta hauek finkatzen dituzten zergako elementuak ezartzen baitira, jendeaurreko jarriko dira udaletxeko bulegoetan dagozkien kobrantza-epeak hasi baino hamabost egun lehenagotik.

Aipatu errolden betekizunaren aurka berraztertzeko errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi-bidera jo aurretik, erakustaldi publikoko epean eta epe horren azken egunetik zenbatzen hasita hilabeteko epean.

Aurrekoarekin bat, azaldutako egutegi fiskal honen iragarkiak kobrantza iragarkiaren zeregina ere beteko du. Kobrantza ondorengo zehaztapenaren arabera egingo da:

a) Dirua sartzeko epeak: Egutegi fiskal honetan agerzen direnak.

b) Ordaintzeko era: Helbideratutako erreziboak zuzenean sartuko dira bezeoak esandako Banku edo Aurrezki Kutxaren kontuan.

Helbideratzeke daudenei zorretan dutena ordaintzeko beharrezkoa duten agiria helbide fiskalera bertara bidaliko zaie.
Ordainketa Udaleko bulegoetan edo Kutxabanken ordainduko dira.

Agiri hori eskura izango ez balu, zorretan dagoenak edo haren ordez ordaindu nahi duenak, Udaleko bulegoetan eskatuko du agiria, borondatezko ordainaldiaren barne.

c) Borondatez ordaintzeko denboraldiaren amaiera: Egutegi fiskal honetan zehazturiko borondatez ordaintzeko epea amaitu eta gero, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboari dagozkion errekarguak, berandutza interesak eta, hala badagokio, sor daitezkeen kostuak ere ordaindu egin beharko dira.

**3.- 3/2022 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA.**

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Kontuen Batzorde Bereziak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak, bozketa egin eta gero, legezko gehiengoz, honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**KREDITU GEHIGARRIAK**

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|---|---|---|
| 2 | GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN | 105.805,55 |
| 6 | INBERTSIO ERREALAK | 2.128,66 |
| **KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA** | | **107.934,21** |

**FINANTZAKETA**

| Kapituluak | Izena | Zenbatekoa |
|---|---|---|
| 8 (SARRERAK) | FINANTZA AKTIBOAK | 107.934,21 |
| **GUZTIRA** | | **107.934,21** |

**Bigarrena.-** Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

**4.- HERRIALDE BEHARTSUENEKIKO LANKIDETZA PROGRAMA ETA DIRULAGUNTZAK BANATZEKO ARAUDIAREN ARABERAKO BANAKETA ONARTZEA.**

Udalbatzarrak, 2021eko abenduaren 27an egindako bilkuran, herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia onartu zuen.

Horren arabera, onartutako araudian jasotako baloraketaren erizpideak jarraituz, 2021eko ekitaldiari dagokionez, 4.750,00 euro banatuko ziren eskatutako baldintzak betetzen zituzten erakunde ez-gubernamentalen artean.

Honela, egindako eskariak aztertu eta baloratu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuetako Lantaldeak egindako proposamena jarraituz, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko etorritako lau zinegotzien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Udalak onartutako "Herrialde behartsuenekiko lankidetza programa eta dirulaguntzak banatzeko araudia" jarraituz, honako modu honetan banatzea 4.750,00 euroko dirulaguntza:

| | |
|---|---|
| Mundu Solidarioa | 650,00 € |
| Taupadak GGKE | 650,00 € |
| Elikagaien bankua | 3.450,00 € |

**GUZTIRA** **4.750,00 euro.**

Bigarrena.- Erabaki hau adierazitako erakundeei jakinaraztea laguntzen araudia ezarritakoaren arabera honako hau bete beharko dutela adieraziz:

" Dirulaguntza justifikapena:

Erakunde onuradunek ondoren aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dizkiote Udalari:

a)Programa burutzeko arduradun izendatuko pertsonari dirua transferitu zaiolako frogagiria.

b)Aurrera eramandako programa edo ihardueari buruzko Memoria xehea.

c)Emandako dirulaguntzaren zenbatekoaren eraberako gastuen jatorrizko egiaztagiriak edo fotokopia konpultsatuak.

Justifikatzeko epea:

Aurreko arikuluan exijitutako agiriak gehienez honako epe hauetan aurkeztuko dira:
a)Aurreko artikuluan lehenengo ataleko egiaztagiria, dirulaguntza jaso eta 2 hilabeteko epean.

b)Hurrengo atalekoak (b eta c) eskatutako egiaztagiriak, iharduera subentzionatua bukatu eta 3 hilabeteko epean gehienez.

Ez betetzearen suposamendua:

Agindu honetan aurreikusitako betebeharretakoren bat ez betetzeak, hura berrikustea ekarriko du eta hala behar izanez gero, emandako dirulaguntza deuseztea, gutxitzea edo itzularaztea.

**5.- AGITAX. 2023 URTERAKO TAXIEN TARIFAK ONARTZEA.**

Goiekiren bitartez, AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak), 2023ko Taxi zerbitzuko tarifak onartzeko eskatuz aurkeztu duen idatziaren berri ematen da.

Zentzu horretan, elkartean egindako azterketa ekonomikoaren arabera, %10,3 igotzea proposatzen da.

Proposamena ikusirik, Udalbatzarrak, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- AGITAX-ek (Gipuzkoako Taxisten Elkarteak) egindako proposamena onartzea, eta ondorioz, gaur egun indarrean dauden tarifak %10,3 igoz, 2023an ezarriko diren Taxi zerbitzuko tarifak honako hauek izango dira:

| KONTZEPTUA<br>TARIFA | Abiasaria | KILOMETRO IBILITA | ITXARONALDI ORDUA |
|---|---|---|---|
| TARIFA 1* | 4,1288 | 1,2926 | 24,6886 |
| TARIFA ** | 4,1288 | 2,0615 | 38,8025 |

* Lanegunetan 07:00tik 22:00 arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 7:00 arte. Bai igande eta araudi autonomikoa eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 7:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

Bigarrena.- Erabaki hau GOIEKIri eta AGITAX-i jakinaraztea.

**6.- ORMAZPEI S.L. LUDOTEKA ETA GAZTELEKU ERABILERA IZANGO DUTEN LOKALEN EGOKITZAPEN LANEN 3. LAN EGIAZTAGIRIA.**

Espedientea ikusirik.

Udalbatzarrak, 2021eko uztailaren 20an egin zuen bilkuran Zegamako udalerrian ludoteka eta gazteleku erabilera izango duten beheko solairuko lokalak egokitzeko obrak kontratatzeko administrazio administrazio pleguak onartu zituen, prozedura irekiz eta ohiko tramitazioarekin.

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, eta Kontratazio Mahaiak, 2021eko irailaren 14an, egindako proposamena jarraituz, urriaren 5eko Alkatetzaren erabakiaren bidez, erreferentziako kontratua honakoaren arabera esleitzea ebatzi zen:

ORMAZPEI, S.L.PABLO VI AUZUNEA, 18 BEHEA-AZPEITIA (NIF.- B20630513) enpresari esleitzea, 251.769,61 eurotan gehi 52.871,62 euro BEZaren %21ari dagozkionak (guztira, 307.852,48 euro BEZ barne), baldintzen pleguetan eta aurkeztutako proposamenaren arabera.

Horren arabera, adierazitako kontratua 2021eko urriaren 19an sinatutako kontratuan formalizatu zen.

Udalbatzarrak 2021eko azaroaren 2an egindako bilkuran, azaldutako Alkatetzaren erabakia berretsi zuen.

Une honetan, Ormazpei S.L. enpresak, lan horien 3. lan egiaztagiria eta faktura (10/2022 zenbakia duena) aurkeztu du, honen zenbatekoa, 98.656,87 eurokoa BEZ barne delarik.

Udalbatzarrak, 2021eko azaroaren 23an egindako bilkuran, lehen lan egiaztagiria eta faktura (05/2021 zenbakia duena) onartu zuen (honen zenbatekoa, 132.311,71 eurokoa BEZ barne delarik) eta 2022ko uztailaren 14an egindako bilkuran, bigarren lan egiaztagiria eta faktura (08/2022 zenbakia duena) onartu zuen, honen zenbatekoa, 73.672,65 eurokoa BEZ barne delarik.

Faktura ikusirik, Udalbatzarrak, etorritako Zegama Lantzen taldeko bost ordezkarien eta EH Bildu taldeko lau ordezkarien aldeko botoekin, aho batez, honako hau erabakitzen du:

Lehena.- Adierazitako faktura onartzea.

Bigarrena.- Fakturaren gastuak onartzea, 1.0000.622.01.334.00.2021 eta 1.0000.622.01.334.00.2022 aurrekontu sailei egotziz, eta ordainketa bideratuz.

Hirugarrena.- Doakienei erabaki hau jakinaraztea.

**7-. ALKATETZAREN ERABAKIAK.**

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

09/0922 erabakia, irailaren 20koa, Askatasunaren Etorbidea 9 behean, fisioterapia-zentroa jarduera hasteko baimena emanez.

010/0922 erabakia, irailaren 21ekoa, egurra ateratzeko baimena emateari buruzkoa.

011/0922 erabakia, irailaren 21ekoa, III. Zegama-Aizkorri mendi duatloia antolatzeko egindako eskaerak onartuz.

012/0922 erabakia, irailaren 26koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.

013/0922 erabakia, irailaren 27koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.

014/0922 erabakia, irailaren 29koa, 16 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila); guztira 41.030,29 euro onartuz.

015/0922 erabakia, irailaren 29koa, 02/2022 kreditu aldaketaren onarpen akordioa behin-betikotzat joz.

016/0922 erabakia, irailaren 29koa, arau fiskalen aldaketaren espedientea bideratzea onartuz.

017/0922 erabakia, irailaren 29koa, 3/2022 kreditu aldaketaren espedienteari hasiera emanez.

01/01022 erabakia, urriaren 5ekoa, Ormaiztegiko Udalak barne sustapen prozedura bateko epaimahaian Zegamako Udaleko idazkaria ordezko mahaikide gisa jarduteko egindako eskaera onartuz.

02/01022 erabakia, urriaren 6koa, hiri izaerako lurren balioaren gehikuntzaren gaineko zergaren kitapen zerrenda onartuz.

03/01022 erabakia, urriaren 13koa, Tolosako Lehen Auzialdiko 4. Zenbakiko epaitegiak eskatutako egiaztagiria bidaltzea onartuz (Txarape B igogailua).

04/01022 erabakia, *urriaren 13koa,* obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.

05/01022 erabakia, urriaren 13koa, Ludoteka eta Gaztelekuko lokala egokitzeko lanen barnean, Ormazpei S.L.enpresak aurkeztutako 3. Lan egiaztagiria eta faktura onartuz.

06/01022 erabakia, *urriaren 14koa,* 17 zenbakidun fakturen erlazioa (iraila); guztira 65.701,74 euro onartuz.

07/01022 erabakia, urriaren 17koa, San Martin jaietan elikagaien salmenta furgoneta jartzea onartuz.

08/01022 erabakia, urriaren 17koa, obra txikiko lan baimena emateari buruzkoa.

09/01022 erabakia, urriaren 17koa, lursailen bereiztea emateari buruzkoa.

**8.- GALDE ERANTZUNAK.**

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) San Martinetako bilerei buruz galdetzen du. Alkateak erantzuten du ofizioan bidali zela eta ostegunean ganaduzaleekin 19:30etan egingo dela adierazten du. Zentzu honetan, animaliak gordetzeko hesi eta egiturei buruz hitz egiten dute bilkurakideak. Bestalde, Alkateak adierazten du feria ohiko egitarau eta ekitaldiekin burutzea aurreikusten dela.
- Alkateak adierazten du Euskadi Lagunkoiaren eta gaztediko bilera bilerak astelehenean deituta daudela jakinarazten du.
- Alkateak adierazten du Partzuergoko batzarraren bilera 27an egingo dela.
- Alkateak Cava festa urriaren 29an egingo dela adierazten du. Bestalde adierazten du Seu d´Urgell eta Sant Sadurni d´Anoiako ordezkariak San Martinetara etortzeko asmoa dutela adierazten du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) ordu aldaketa datorrela eta frontoiko argiak martxan jartzea komeni dela adierazten du. Alkateak erantzuten du martxan daudela. Imanolek dio, asteburuetan ere martxan jartzea (17:00etatik 18:30etara) jartzea komeni dela adierazten du. Ildo honetatik, Julian Iraola Lapizondo zinegotziak (Zegama Lantzen) ludotekaren erabilera egoeraren berri ematen du (aulkiak puskatuta, zenbait kalte...). Bilkurakideak, haurrak gurasoen ardurarik gabe sartzen direla adierazten dute. Zentzu horretan erabiltzaileei (gaztedi bileran eta guraso elkarteari ere) araudia gogorarazi beharko zaiela adierazten da, sarreran kartela jartzea komeni dela adierazten da. Txartelen erabilera kontrol bat egitea ere aipatzen du Alkateak, gazteak, arduradunen kontrolik edo baimenik gabe sartzen ez direla ikuskatzeko.

Aztertzeko gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zazpiak eta hogei minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasoarazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.